

Artearen Historia Gradua

Artearen eta Musikaren Historia Saila

2017 / 2018 ikasturtea

MURALISMO PUBLIKOA

IMVG La ciudad pintada / Hiri margotua

Egilea: Karla Francisco Saez

Tutorea: Mikel Onandia Garate

LABURPENA

Muralismo publikoa izeneko praktika artistikoari esker gure kaleak gero eta ikusgarriagoak eta koloretsuagoak bihurtzen ari dira, eta artea presentzia gehiago hartzen ari da hiri espazioan. Egia da pintura murala edo horma-pintura artearen hastapenetatik existitu izan den diziplina dela, baina azkeneko hamarkadetan bere izaera guztiz aldatzen joan da, gizarte berri eta garaikidearen baldintzetara egokituz. Gaur egun, mundu osoko kaleetan aurkitzen ditugu muralismo publikoko adierazpenak, fenomeno internazional bilakatuz.

Nahiz eta hori horrela izan, esan daiteke arte historialariek ez dutela burutu pintura mural eta proiektu artistiko eta garaikide horien inguruko begirada analitiko ugarririk. Horregatik, arte historialari gisa, premiazkoa ikusten dut artearen esparru horren inguruko analisi historiko artistikoa planteatzea. Hori dela eta, pintura mural urbanoaren inguruko GRAL-a plazaratzen da idazlan honetan, zehazki Vitoria-Gasteiz hiriko proiektu muralistiko esanguratsu bat: *IMVG La ciudad pintada/Hiri margotua (Itinerario Muralístico de Vitoria-Gasteiz)*¹.

IMVG-a Gasteiz hiriko adierazpen publikoaren eta komunitarioaren erreminta bat da, 2007. urtean sortua, ekimen parte hartzaileak eta sortzaileak aurrera eramateko gune ireki bat egiteko asmoarekin. Erreminta kulturala izateaz gain, hiritarren parte-hartzea sustatzea eta artista zein sortzaileak bultzatzea du helburu egitasmo artistiko honek. Gasteiz hiriko Alde Zaharrean eta Zaramaga langile auzoan kokatzen dira proiektuak sortutako mural ezagunenak, baina horietaz gain, hiriaren eskoletan, Arabako zenbait herrietan eta Bilbon sortu dituzte horma-irudi publikoak; guztira 37 mural sortu dituzte, eta orain beste bat martxan dago.

Gainera, *IMVG La ciudad pintada/Hiri margotua* deitutakoa ez da Gasteiz hiriburuan aurkitzen den proiektu muralistiko bakarra, tradizio artistiko urbano esanguratsua duen hiria baita hau. Grafitia zein pintura murala landu duten artisten lan ezberdin daude hiriko auzo gehienetan, espazio horiek edertzen laguntzen dutenak, auzoen identitate propio bat sortzen laguntzarekin batera. Halaber, nabarmentzekoa da proiektu artistiko hauetan, artisteraz gain, arte praktikan adituak ez diren hiritarren parte hartzea dagoela, eta talde lana bihurtzen dela adierazpen artistiko horiek izaera propioa eta pertsonala izatera bideratzen duen motorra, arteak kohesio sozialean duen garrantzia azpimarratuz.

¹*IMVG*-aren web orrialde ofiziala: <http://www.muralismopublico.com/p/eu/hasiera.php> (2018.04.16an kontsultatua).

AURKIBIDEA

0. SARRERA: GAIA ETA METODOLOGIAREN JUSTIFIKAPENA	3
1. TESTUINGURUA: GRAFITIA ETA PINTURA MURALA	5
1.1. ESPAZIO PUBLIKOA	8
2. <i>IMVG HIRI MARGOTUA</i>	10
2.1. ZER DA?	10
2.2. HELBURU NAGUSIAK	11
2.3. PROZESUAREN GARRANTZIA ETA ARTISTAK	11
2.4. MURALEN ANALISI ESTILISTIKO FORMALA	12
2.4.1. <i>ZER EGINGO DUGU JAKINDAKOARKEIN ?</i>	18
2.4.2. <i>ITXAROPENAREN ARGIA</i>	20
2.4.3. <i>ZU HEMEN ZAUDE</i>	22
3. VITORIA-GASTEIZEKO TRADIZIO MURALISTIKOA	25
4. ONDORIOAK	28
5. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA	30

0. SARRERA: GAIA ETA METODOLOGIAREN JUSTIFIKAPENA

IMVG La ciudad pintada/Hiri margotua izeneko proiektua aurkezten da hurrengo lan akademikoan. Gasteiz hiriburuan 2007. urtean hasi eta indarrean jarraitzen duen izaera komunitarioa eta soziala duen ekimena.

Lan honen helburu nagusia oraindik ikerketa gutxiren objektu izan den proiektu lokal hau artearen historiaren ikuspuntutik aztertzea izan da; bere garrantzia azpimarratu nahian. Horregatik, beharrezkoa izan da testuinguru batean kokatzea, bai pintura murala modu orokorrean aztertuz, bai hiriaren beraren tradizio muralistikoa aintzat hartuz. Horri erreparatuz, atal ezberdinetan banatzen da lan hau. Lehenik eta behin, testuinguruan jartzeko, pintura muralaren jatorriaren inguruko mapa geokronologikoa proposatzen da; artearen hastapenetik existitu izan den adierazpena, baina azken hamarkadetan aldaketa nabariak pairatu dituena. Ondoren, aipatutako *IMVG*-aren inguruko analisi espezifikoak egingo da, mural ezberdinen azterketa sakonago bat burutuz -muralen izaera heterogeneoa agerian utzi nahian-. Bestalde, ezinbestekoa izan da kontuan hartzea Gasteizen izandako muralismo zein grafiti tradizioa, eta hirian egondako beste hainbat proiektu artistiko ezberdin aztertzea, *IMVG*-a testuinguru zehatz batean kokatzen dela ikustarazteko.

Ikerketa hau aurrera eramateko erabilitako metodologia eta horrekin batera egondako mugak hurrengoak izan dira. Esan bezala, *IMVG*-a eta oro har Gasteizeko pintura murala, ez da modu zehatz batean bere osotasunean aztertu; beraz, hiriko prentsa lokala, proiektuaren web orrialde ofiziala, sortzaileekin elkarrizketak, eta muralen zuzeneko behaketa izan dira erabilitako baliabide nagusienak proiektu osoaren izaera ahalik eta modu fidelean plasmatu ahal izateko. Informazio zehatza eta fidagarria izateko baliagarria izan den arren, ez ordea, beste perspektiba ezberdinetatik ikuspegi kritikoago bat izateko.

Historialari eta idazle gutxik eskaini dute proiektu muralistiko urbano eta garaikide hauen gaineko analisi kritiko eta sakona, ezta haren testuinguru edo jatorriarena ere, gaur modu globalean garatzen diren adierazpen artistikoak izanik. Gainera, pintura mural urbanoari buruz ikertu dutenek -salbuespenak egonik- errestituzio eta kontserbazioaren perspektibatik egin dute, edo artisten eta obren zerrendak ematera mugatu izan dira, horien guztien inguruko testuinguru komun bat planteatu gabe.

Bestalde, pintura muralaren izaera propioak ere ez ditu gauzak errazten. Artearen historiaren hastapenetatik existitu izan den lengoia artistiko da, baina gaur egungo praktikarekin ez du zer ikus handirik, hori dela eta, ezin dira aurreko garaietako pintura muralaren testuinguruak eta ezaugarriak gaur egungo arte mural urbanora estrapolatu. Horregatik, kasu askotan ikusten da pintura mural garaikidea grafitiaren testuinguruarekin

erlazionatzen dela, proiektu eta pintura mural urbanoen pareko hasten dena, baina modu berean eta testuinguru bereran ez dena sortzen. Hori dela eta, grafitiaren inguruko bibliografiaz baliatu naiz, bi diziplina artistiko hauen arteko ezberdintasuna azaltzeko, baita antzekotasunak ere. Ildo horretatik abiatuz, muralismoaren inguruko testuinguru zehatzago bat planteatzen saiatu naiz.

Izaera honetako proiektu bat aztertzerako orduan muga eta zailtasun horiekin topatzea ez da harritzekoa. Arte garaikidean, tendentzien eta proposamenen arteko mugak gero eta definiziozina direla ikusten baitugu. Beraz, diskurtsoei, batez ere garaikideei, buelta eman eta mugak diskurtso berriak sortzeko erreminta gisa erabiltzea aproposagoa izango litzateke.

1. TESTUINGURUA: GRAFITIA ETA PINTURA MURALA

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da ez dela erraza pintura mural urbano eta garaikidearen inguruko testuinguru argi eta definitibo bat planteatzea. Irizpide ezberdinak aurkitzeaz gain, pintura murala aztertu duten ikertzaileak ez dira muralismoaren jatorrian gehiegi zentratu, eta askotan, espazio urbanoan dauden artelanak izanik, kontserbazioa izan da analisi abiapuntua, edo artista eta artelaneen adibide zerrendak egitera mugatu izan dira. Pintura murala artearen historiaren hasieratik existitu izan da, baina bere garapenak asko aldatu du bere izaera, eta arte prehistorikoko edo eliza erromanikoko zenbait adierazpen pintura mural kontsideratzen diren arren, gaur egungo pintura mural urbanoarekin ez dute zerikusi handirik. Gainera, askotan pintura murala grafitiarekin erlazionatu izan da; grafitia ere mural batean egindako adierazpena da, eta bere kasuan diskurtso teorikoa oparagoa eta zehatzagoa dela ikus daiteke. Hala ere, horrek ez du esan nahi grafitia eta pintura murala gauza bera direnik.

Hortaz, iturriei dagokionez, ez da homogeneousun ikusten adituen artean; idazle eta ikertzaile batzuk pintura mural garaikidea grafitiaren testuinguruarekin erlazionatzen duten bitartean, beste batzuk ordea, Mexikoko pintura muralera abiatuko dira. Biak *street art* generoaren barnean sailkatuak izan arren, haien arteko ezberdintasunak daude estiloan, adierazpenean zein helburuan.

Grafitiarekin erlazionatzen duten iturrietara abiatzean, batzuk mural figuratiboa grafitiaren garapen baten moduan aurkezten dute. Orokorrean, onartua dago grafitia 60. hamarkadaren amaieran sortu zela, nagusiki New York hirian, baina baita, nahiz eta modu ez hain nabarmenean, Filadelfian, Washintongen, Los Angelesen edo Chicagon ere. Zenbait artista gazte kaleetara abiatu ziren hauek letraz, haien izenez edo irudiekin betetzeko; kaleko murrak, metroetako bagoiak edo estazioak ziren haien euskarri nagusia². Espainiaren kasuan fenomeno hori 80. hamarkada inguruan sortu zen, eta gaur egun arte finkatzen joan da.

1960. urtean Brassai idazle eta argazkilari hungariarrak *Graffiti* izeneko liburua publikatu zuen. Hogeita hamar urte inguruko ikerketaren emaitza izan zen, zeinetan grafiti interbentzio oso anitz eta heterogeneoak aipatzen ziren, Ponpeyakoak zein Picassorenak barne. Brassai izan zen lehenetarikoa grafitia kategoriatik artistikora goratzen, praktika hau “*Art Brut*” forma bat zela defendatuz, primitiboa eta iragankorra. Hala ere, autoreak pareta batean edo espazio publikoan ikusgai dagoen azaleran egindako edozein espresio plastiko grafiti gisa ulertzen du; horrela ere planteatzen du Nicholas Ganz-ek *Graffiti. Arte urban en*

²BERTI, G. I.: *Pioneros del graffiti en España*. Valencia, Universidad Politécnica de Valencia, 2009, 10.orr.

*los cinco cinco continentes*³ liburuan, bertan, grafitiari buruz hitz egitean Antzinateko Greziara abiatzen baita⁴.

Grafitiaren barnean diziplina edo tipologia anitz aurkitzen dira eta horietako bat mural figuratiboa da. Figuratibismoa grafitiaren munduan letrak eta abstrakzioa baino askoz geroago agertu zen. Hasiera batean, pertsonaiak eta karikaturak letrak laguntzeko erabiltzen ziren, bigarren mailako elementu gisa agertuz. Hala ere, gaur egungo grafiti egile edo *writer* kopuru handi batek adierazpen figuratiboak lantzen dituzte, eta abstrakzioa saihesten dute⁵.

Nahiz eta antzekotasunak egon eta batzuetan guztiz erlazionatuak egon -eta horregatik beharrezko izan da grafitia aipatzea -ezin ditugu ulertu grafitia eta pintura murala berdinak bailiren. Mural erraldoi instituzionalak azken hamarkadetan hain ohikoak egin direnak arte urbanotzat jotzen dira, baina grafitia ere sartzen da arte urbano kontzeptuaren barnean, hori dela eta, nahasmenak sortu ahal dira bi hauek ezberdintzean. Grafitia *street art*-earen modalitate bat dugu, izaera inkonformistaduna eta ofizialtasunetik kanpo jaiotzen dena -nahiz eta gaur egun garai batean ikusten ziren irudiak onartuak izan-. Artelan bat grafiti kontsideratzeko, nahiz eta iritzi ezberdinak egon, bi ezaugarri nagusi bete behar dituela esan daiteke: artelana subertsiboa, hau da, ofizialtasunetik kanpo egotea eta galkorra izatea. Muralismo publiko garaikideak, berriz, izaera monumentala dauka, eta gainera, dekorazio funtzioa, baita didaktikoa ere, klase sozial guztiek ulertzen duten errealitate bat kontatzen saiatzen baita. Arte murala ofizialtasunaren barnean kokatzen da gehienbat eta instituzioen babespean sortzen dira adierazpen artistiko horiek.

Hala ere, haien arteko mugak definitzea zaila izaten da askotan, orokorrean arte garaikidearekin gertatzen den moduan. Grafitian zein arte muralean manifestazio bisual baten bidez mezu, ideia edo protesta bat helaraztea saiatzen da. Espazio publikoa mezu komertzialez dominatua den garaian, askatasun espresio moduan uler daitezke bi diziplinak, oro har.

Aurretik aipatu den moduan, gaur egungo pintura mural edo horma-irudien inguruan hitz egiterakoan, beste testuinguru eta jatorriak aipatzen dituzten ikertzaileak badaude, horien artean Tomás Muñoz Asensio Arte Ederretan Doktorea, *Arte Mural Urbano. Madrid, 1961-1991* izeneko bere doktorego tesian. Muñoz Asensiok dioen duen moduan, eraikinen kanpoaldean pintatzea arkitektura bera bezain zaharra da. Antzinateko eraikinak,

³GANZ, N.: *Graffiti. Arte urbano en los cinco continentes*. Barcelona, Gustavo Gili, 2004, 8-9.orr.

⁴BERTI, G. I.: *Pioneros del graffiti en España*. Valencia, Universidad Politécnica de Valencia, 2009, 11.orr.

⁵CAMPOS, C.: *Graffiti y arte urbano: atlas ilustrado*. Madrid, Susaeta, 2011, 95.orr.

Partenoia adibidez, margotuak zeuden, eta erromanikoko zein gotikoko elizen portadek polikromiaren aztarna batzuk mantentzen dituzte⁶. Antzinatean, Erdi Aroan eta Aro Berrian arkitekturaren kontzeptua pinturarekin erlazionatua egon da zuzenki. Baina hiri garaikidean espazio urbanoetako margogintza muralaren praktika XIX. mendean garatutako fenomeno da bereziki. Gainera, pintura murala baino lehen kaleetan kartelak agertu ziren, eta, Jules Cheret⁷-en eskutik, besteak beste, Paris hiriko paretak publizitate kartekez beteak izan ziren⁸.

Baina pintura muralaren benetako garapena Amerikako kontinentean eman zen. Lehenik Mexikon, XX. mendeko hogeigarren hamarkadan, José Clemente Orozco, Diego Rivera eta David Alfaro Siqueiros artisten eskutik, eta ondoren, AEBtan hogeita hamargarren hamarkadan, eragin mexikarratik eta New Deal⁹ espirituaren ondorioz. Gobernu estatubatuarrak Federal Art Project (1935–43) ekimenaren barruan W.P.W. (Works of Public Art) programa sortu zuen, langabezia artistikoa murrizteko, eta depresioan murgilduta zegoen herrialde bati mezu optimista eta konfiantzazkoak helarazteko helburuarekin. Aurrekari hauen ondorioz, horma-irudiak egitea helburu zuten zenbait erakunde jaio ziren¹⁰. 60. hamarkadaren hasierako urteetan, pop izaerako muralak agertu ziren gehienbat, kartel, iragarki eta trafikoko seinaleen artean, eta pinturaren mihisetik murrurako igarotze horrek inguru degradatuenean marjinazioari buruzko kritika suposatu zuen. Ondorengo urteetan, “arte denontzat” edo “museoa kalean” bezalako esaldiak diskurtso instituzional organizatu baten elementuak izango ziren. Geroago, fenomeno hau Europara pasa zen eta bere ospea 70. hamarkadan emango da. Muñoz Asensioren hitzetan, 1971an François Morellet-ek Frantzia lehenengo horma-bitartekoak margotzen ditu eredu amerikarretan oinarrituz, 1972an Robert Lenkiewicz-ek lehendabiziko mural handia egiten du Britainia Handian, eta 1973an Eduardo Arranz-Bravo-k eta Rafael Lozano Bartolozzi-k autopista kataluniar baten bide-bazterrean dagoen fabrika baten kanpoaldean sortzen dute bere obra ezagunena -hala ere, ez dago datazio zehatzen fidagarritasun osoa-¹¹.

⁶MUÑOZ ASENSIO, T.: *Arte mural urbano. Madrid 1961-1991*. Madrid, Universidad Complutense, 1993, 11.orr.

⁷Jules Cheret (1836-1932) frantziar pintore eta litografoa izan zen, kartel modernoaren aitatzat kontsideratzen dena.

⁸GRAU TELLO, M. L.: “La pintura mural en el espacio urbano”, *Revista de Andorra*, 8 zbk., 2009, 258-272.orr.

<http://www.celandigital.com/25/index.php/publicaciones/pub-periodicas/revdeand/revista-de-andorra-14> (2018.02.28an kontsultatua).

⁹Ameriketako Estatu Batuetan, F. D. Roosevelt lehendakariak, 1933-1939 bitartean, 1929ko ekonomia krisia gainditzeko asmoz ezarri zuen ekonomia politika. Hartu ziren neurrien helburua ekonomia sustatzea eta langabetuen kopurua (14 milioi) gutxitzea zen. Dolarraren balioa beheratu zen, obra publikoak sustatu ziren, langileen sindikatuak onartu ziren eta langabeziarako eta zahartzarorako gizarte laguntzak banatu ziren. http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000376/eu/contenidos/termino/_c04410/eu_n_0710/n0710.html (2018.05.03 kontsultatua).

¹⁰MUÑOZ ASENSIO, T.: *Arte mural urbano. Madrid 1961-1991*. Madrid, Universidad Complutense, 1993, 11.orr.

¹¹Ibid. 14-15.orr.

Espainiar muralismoaren kasuan adierazgarriak izango dira 60-70. hamarkadak. Demokrazia bateranzko trantsizio prozesuaren barnean, Espainian pintura muralak espazio urbanoan lehen mailako papera izan zuen. Izan ere, alderdi politikoez zein hiritarrek haien aldaketa desioa adierazteko baliabide ezinbestekoa izan zuten pintura murala. 60-70. hamarkadetako Espainiako eta munduko beste herrialde askoren murrak hiritarren manifestazioen euskarri bihurtu ziren, pintada espontaneo zein kreazio piktoriko elaboratuen bitartez¹².

Laburbilduz, pintura mural garaikidearen tradizioa edo jatorria aztertzea ez da bide erraza, eta elementu anitz kontuan hartu behar dira. Alde batetik, pintura muralaren izaera hastapenetatik gaur egunera arte asko aldatu da, eta ezin dira antzinatekoak eta garaikideak diren ereduak ikuspuntu berdinetik aztertu. Bestalde, historialari eta adituen artean ez dago diskurtso homogeen eta unitario bat. Arte garaikidea aztertzerakoan gehienetan ematen den moduan, joera eta adierazpen artistikoen arteko mugak gero eta nahasiagoak daude, eta alderdi ezberdinak (grafitia, AEBko muralismoa, Espainiako trantsizio garaia...) kontuan hartu behar dira ahalik eta diskurtso osoena eskuratzeko.

1.1. ESPAZIO PUBLIKOA

Testuingurua osatzeko aurreko elementuei erreparatzeaz gain, ondoren aztertuko den *IMVG* proiektuaren izaera ulertzeko kontuan hartu beharreko beste puntu bat espazio publikoaren kontzeptua da. Izan ere, *IMVG*-a eta oro har, garaikideak diren horma-irudi gehienak espazio publikoan gauzatzen dira. Hala ere, arte publikoa ez da bakarrik Aro Garaikidean existitu, garai guztietako artea publikoa izan baita. Lehendabiziko labar pintoretatik artearen espazioa publikoa izan da, gizartean bizitako espazioa. Antzinateko Grezian, pinakoteka hitzak, paretetan pinturak, barrutik zein kanpotik, zituzten eraikinak izendatzeko balio zuen. Hiritarrak gune komunitario eta guztiz eskuragarri hauetara joaten zen eszena ezberdinak ikustera. Murruan edo horman dagoen pintura hiriarekin lotetsi egiten da, bere *polisera*, politikara eta hiritarretara¹³.

Espazio publikoak paper ezinbestekoa betetzen du hiritarren komunikazioan, aurkezten duen informazioaren berehalakotasunak diskurtsoen heterogeneotasunean,

¹²GRAU TELLO, M.L.: "Cuando los muros hablan. Una aproximación a la pintura mural en el espacio urbano durante la Transición", *Arte y Ciudad- Revista de Investigación*, 3 zbk., 2013, 71-89. orr. <http://www.arteyciudad.com/revista/index.php/num1/article/view/88> (2018.02.28an kontsultatua).

¹³BERTI, G.I.: *Pioneros del Graffiti en España*. Valencia, Universidad Politécnica de Valencia, 2009, 6.orr.

artistikoetan barne, laguntzen du. Arte monumentalaren bidez komunikazio, interbentzio, denuntzia eta erreklamo taktikak eraikitzen dira, eta bertan akzio kolektiboa nagusitzen da, erresistentzia espazio kultural berriak sortaraziz. Gaur egun, mural, grafiti, *performance* eta bestelakoen bidez, espazio publikoaren nolabaiteko hiritarren jabetza ematen dela ikusten da, eta interbentzio horiek anonimoa den espazio bat esanguratsua bihurtzen dute, horrela espazio berriak sortuz¹⁴, *IMVG*-ak bere muralekin lortu duen moduan.

¹⁴CAPASSO, V.C.: “Apropiaciones y reapropiaciones del espacio de la ciudad. Un análisis de intervenciones artístico-políticas contemporáneas en la transformación del imaginario sobre lo público”, *Questión. Revista Especializada en Periodismo y Comunicación*, 2011, 32 zbk., 1-2.orrr.
<http://perio.unlp.edu.ar/ojs/index.php/question/article/view/1284> (2018.04.16an kontsultatua).

2. *IMVG HIRI MARGOTUA*

2.1. ZER DA?

*IMVG La ciudad pintada/Hiri margotua (Itinerario Muralístico de Vitoria-Gasteiz)*¹⁵ adierazpen publiko eta komunitario gisa funtzionatzen duen erreminta da. Verónica Werckmeister-rek, Christina Werckmeister-rek eta Brenan Duart-ek 2007an sortu zuten Gasteizen, ekimen parte-hartzaileak eta sortzaileak aurrera eramateko gune ireki bat sortzeko asmoarekin. Zehazki, eta fundatzaileek helarazi zidaten moduan, proiektu hau hasten da AMBA-k (Asociación de Amigos del Museo de Bellas Artes y Artium) Verónica Werckmeister gonbidatu zuelako muralismo publikoaren inguruko tailer bat emateko. AMBA-ko egoitzaren barnean (lehen Manuel Iradier kalean, eta egun desagertua) sortu zuten mural bat, horren ondorioz, eta tailerrak izandako arrakasta ikusita, parte hartzaileek kanpoaldeko fatxadan sortu nahi izan zuten horma-irudi bat. Azkenik, urte horretan, 2007an, Burulleria plazako fatxadan mural bat egiteko baimena eta finantzazio ezberdin lortu zituzten.

Verónica Werkmeister (Los Angeles, 1977) pintorea eta muralista da. 1993. urtean Los Angeles hirian hasi zuen bere ibilbidea esparru muralistikoan, SPARC (*Social and Public Art Resource Center*)¹⁶ zentroan lanean. Zenbait hirietan ibili da mural publikoak zein pribatuak egiten; Chicago, New York, San Francisco, Philadelphia, Boston, Barcelona, Gasteiz... Beraz, horma-irudien mundu artistikoarekin kontatu zuzena eduki du, eta beti genero berdintasuna, bakea, memoria historikoa, edo ingurune naturalaren iraunkortasuna bezalako gai unibertsalak jorratu ditu bere lanetan, *IMVG*-an ikusgaik direnak, hain zuzen ere.

Christina Werkmeister (Los Angeles, 1966) proiektuaren ikusmen globalaren sortzailea da, eta *Brigada de la Brotxa*, dokumentazio ikus-entzunezko tailerra edo *video-mapping* bezalako praktika berritzaileen sustatzailea; Gasteizeko proiektuan agerian daudenak.

Brenan Duarte (Vitoria-Gasteiz, 1968) diziplina anitzeko artista eta gestore kultural independentea da. Pintura, grabatua, eskultura, bideoa edo argazkilaritza bezalako teknikak menperatzen ditu. Nazio mailako zein nazioarteko arte bilduma ugaritan dago bere obra.

2007tik *IMVG*-ak horma-irudigintza publikoen 16 tailer sortu ditu Gasteizko Alde Zaharrean zein Zaramagako auzoan. Horietaz gain, 12 mural egin dituzte Arabako

¹⁵*IMVG*-aren web orrialde ofizialean proiektuaren inguruko informazioa eskuragarri dago: <http://www.muralismopublico.com/>.

¹⁶Los Angeleseko (California) zentro artistikoa: <http://sparcinla.org/>.

herrietan, 8 Gasteizeko eskoletan eta beste bat Bilbon. Honi gehitu behar diogu 2018an hasiko duten horma-irudi berria, Ramon Bajo izeneko ikastetxean, hiriaren Erdi Aroko alمندraren garaian kokatua, 2017tik jada iragarritako proiektua.

2.2. HELBURU NAGUSIAK

- Erreminta kultural gisa funtzionatzea, artearen bitartez hiritarren giza kohesioa errazteko.
- Hiritarren parte hartzea sustatzea, eta arte publikoko artelanak ekoiztea gizartearen inplikazio orokorrarekin. Parte hartze handia duen estruktura batekin, fatxadetan eskala handiko muralak osatzen dituzte, arte galeria urbano bat sortuz, emaitza prozesua bezain garrantzitsu izanik.
- Artistak eta kreatorak bultzatzea: *IMVG*-aren bidez artista profesionalak auzokideekin batera lan egiten dute, auzo bat hobetzen eta edertzen lagunduz modu aktibo batean parte hartuz.

2.3 PROZESUAREN GARRANTZIA ETA ARTISTAK

IMVG-aren tailerrak 6 aste inguru irauten dute, eta hauek bi fasetan banatzen dira: diseinua eta produkzioa; normalean uda inguruan izaten dira.

Diseinua: artistak parte hartzaileekin biltzen dira sesio ezberdinetan. Kreatibitate ariketen bitartez eta argudioak planteatuz gai ezberdinen inguruan ikertzen da. Ideia osoa garatu ondoren eskalan zirriborroa egiten da.

Produkzioa: artista zuzendariak, laguntzaileak eta *Brigadas de la Brotxa* izendatutako taldeek egunero zortzi orduz egiten dute lan zirriborroa paretara eramateko. Boluntarioek ahal duten denbora ematen dute lanean ordutegi laboralean, baina asteroko hamar orduko parte hartzea eskatzen zaie, proiektuarekin konprometituak egon daitezen. Murala bukatzen denean inaugurazioa egiten da, auzoan festa bat ospatuz.

Orain arte 33 artista inguruk parte hartu dute, *IMVG* proiektuaren sortzaileak barne. Gehiengoak Arte Ederretan graduatuak diren Gasteizeko hiritarrek dira, baina badaude Espainiako beste tokietako artistak -Bilbo, Getxo, Aretxabaleta, Logroño, Zamora, Jeréz de la Frontera, Guadalajara, Madrid, eta Valladolid-, baita artista atzeritarrak ere -Villa del Mar (Chile), Philadelphia (AEB), Bogotá (Colombia), New York, Los Angeles edo Mexiko DF-.

2.4. MURALEN ANALISI ESTILISTIKO FORMALA

Proiektuaren produkzioa oso zabala denez, lan honetan Gasteiz hiriko auzoetako kaleetan *IMGV* proiektuaren parte diren 16 horma-irudi publikoen aurkezpena egingo da, segituan, esanguratsuenak izan daitezkeen mural batzuen azterketa sakonagoa planteatuz. Hamabi mural Alde Zaharrean aurkitzen dira, eta beste laurak Zaramaga langile auzoan. Guztiak 2007. urtetik 2016. urtera sortutako muralak dira.¹⁷

DENBORAREN HARIRA (2007)



Urtea: 2007

Izenburua: *Denboraren Harira /Al hilo del tiempo*

Zuzendaritza: Verónica eta Christina Werckmeister

Azalera: 225 m²

Kokapena: Txikita kalea 9

Ikuspegi hoberena: Burulleria plaza

Izenburuak, *Denboraren harira*, plazaren testuinguru historikoari egiten dio erreferentzia, Erdi Aroan oihal eta ehun merkatua baitzen. Ehunak eta oihalak dira horma hau kolorez betetzen duten elementuak.

KONTINENTEAK (2008)



Urtea: 2008

Izenburua: *Kontinenteak/Continents*

Zuzendaritza: Verónica eta Christina Werckmeister.

Kokapena: Santa Maria Kantoia

Ikuspegi hoberena: Santa Maria Kantoia, San Bizente Paulekoaren kalea

Haur eskola bat eta harrera-etxe bat barne hartzen dituen udal eraikin batean margotutako lau fatxada. Munduko toki desberdinetako animalien gaia hautatu zen, sinbolikoki auzoaren aniztasuna islatzeko.

¹⁷Argazkilaria: Karla Francisco Saez.

GASTEIZEKO GARAIPENA (2009)



Urtea: 2009

Izenburua : *Gasteizeko Garaipena/El Triunfo de Vitoria*

Zuzendaritza: Carlos Adeva


Azalera: 225 m²

Kokapena: Santa Maria kalea 9

Ikuspegi hoberena: Etxanobe Lorategia

Georges de la Tour-en *Tranpatia* koadroan (XVI. mendea) oinarritua baina Erdi Aroko inguru batean girotua. Gasteizeko Andere handiak karta partida bat jolasten du tranpak egiten saiatzen duen gizon batekin (botere ustelaren ikurra), eta harro agertzen dena kartak publikoari erakutsiz.

ZERU ETA IZARREZ ESTALIRIK (2009)



Urtea: 2009

Izenburua: *Zeru eta Izarrez Estalirik/Cubierto de Cielo y Estrellas*

Zuzendaritza: Patricia López Landabaso

Azalera: 225 m²

Kokapena: Pintore kalea 76

Ikuspegi hoberena: Santa Ana Kantoia

Santa Anak San Joaquini Jerusalemgo Urrezko Atean emandako musuaren berrinterpretatzea da, XIV. mendeko Giotto di Bondone pintorearen arabera. Hala ere, pertsonaien konposizioari erreparatzen badiogu Klimten *Musua* koadro ekartzen digu gogora.

GAURIK MOTZENA (2010)



Urtea: 2010

Izenburua: *Gaurik Motzena/La noche más corta*

Zuzendaritza: Gorka Otsoa de Alda

Azalera: 180 m²

Kokapena: Hedegile kalea 96

Ikuspegi hoberena: Harresiaren Lorategia

Gasteizko Erdi Aroko Harresiaren Lorategiko inguru pribilegiatuan kokatua, San Juan gaua, bere jaia eta bere magia irudikatzen ditu. Figura eta forma ugariko diseinua da, eta sakontasuna adierazi nahian paisaia arkitektoniko bat irudikatu dute hondo urdinean.

ESKUZ ESKU (2010)

Lan hau hiru horma-irudik osatzen dute: bi fatxadetako pinturak eta beheko aldean dagoen mosaikoa, guztien arteko lotura eskuaren sinboloa izanik. Eskua musika, artea, lana... sortzen duen tresna da.

ESKUZ ESKU (Errementari)



Urtea: 2010

Izenburua: *Eskuz Esku* (Errementari)

Zuzendaritza: Estibaliz Vera

Azalera: 130 m²

Kokapena: Errementari kalea 86

Ikuspegi hoberena: Harategi Kantoia

ESKUZ ESKU (Zapatari)



Urtea: 2010

Izenburua: *Eskuz Esku* (Zapatari)


Zuzendaritza: Marta Gil Estremiana

Azalera: 150 m²

Kokapena: Zapatari Kalea 79

Ikuspegi hoberena: Harategi Kantoia

ESKUZ ESKU (Mosaikoa)



Urtea: 2010

Izenburua: *Eskuz Esku* (Mosaikoa)

Zuzendaritza: John Pitman Weber

Azalera: 50 m²

Kokapena: Errementari Kalea 86, Zapatari Kalea 79

Ikuspegi hoberena: Harategi Kantoia

ZER EGINGO DUGU JAKINDAKOAREKIN ? (2011)



Urtea: 2011

Izenburua: *Zer egingo dugu jakindakoarekin?/¿Qué haremos con lo que sabemos?*

Zuzendaritza: Verónica Werckmeister

Azalera: 150 m²

Kokapena: San Prudentzio ikastetxea kalea

Ikuspegi hobereena: Artium enparantza, Frantzia Kalea

Naturaren inguruko gaia jorratzen da hemen eta galdera hau planteatzen zaio ikusleari: Zer egingo dugu jakindakoarekin? Mendeetan zehar metatzen ari garen ezaguera guztia erabiltzen ari gara?

ITXAROPENAREN ARGIA (2011)



Urtea: 2011

Izenburua: *Itxaropenaren Argia/La Luz de la Esperanza*

Zuzendaritza: Michelle Angela Ortiz eta Iván García
Bartolomé

Azalera: 225 m²

Kokapena: Zapatari, 76

Ikuspegi hobereena: Anorbin Kantoia

Berdintasunaren aldeko mural koloretsua da, ezkerreko amonak protagonismoa hartzen duelarik. Koloreen hizkuntza sinbolikoaren bidez, ezberdintasunetik eta estereotipoetatik hezkuntzara, justiziara eta esperantzara abiatzeko nahia adierazten da.

URA GARA, ARTE GARA (2011)



Urtea: 2011

Izenburua: *Ura Gara, Arte Gara/Somos Arte, Somo Agua*

Zuzendaritza: Verónica Werckmeister

Laguntzaileak: Estibaliz Vera eta Aleksei Lacalle.

Azalera: 200 m²

Kokapena: Aldabe Gizarte Etxea

Ikuspegi hoberena: Aldabeko Igerilekua

Ura agertzen da gure ingurumenaren funtsezko elementu gisa; ura inspirazio iturri eta bide: lamia, sirena, galtzeko bidean dauden espezieak, kirolak, itsas flora eta forma abstraktuak. Irudi batean Degas pintorearen *Izarra* (1876-77) izeneko koadroaren dantzaria agertzen da.

BEHIN BATEAN BOLUNTARIOTZA (2012)



Urtea: 2012

Izenburua: *Behin Batean Boluntariotza/Érase una vez, el voluntariado*

Zuzendaritza: Antoni Gabarre

Azalera: 82 m²

Kokapena: Barrankal kalea 20

Ikuspegi hoberena: Aldabe enparantza

Boluntarioei omenaldia da, bereziki Gasteizko paisai urbanoan lan egiten dutenentzat. Ehundu gabeko materialaren bidez sortu zuten mural hau. Lehenik irudia oihalen egin eta gero hau horma gainean kokatu zen.

EGIAREN MESEDE JARRAI ETA EKIN (2013)



Urtea: 2013

Izenburua: *Egiaren mesede jarrai eta ekin/No hay presente ni futuro sin memoria*

Zuzendaritza: Javier Hernández Landazabal

Azalera: 210 m²

Kokapena: Reyes de Navarra kalea, 28

Ikuspegi hoberena: Martxoak 3 Enparantza

Zaramagako auzoan egindako lehengo murala da, 1976ko martxoaren 3an gertatuko istiluen ingurukoa. Gertakizunak eman ziren San Frantzisko elizaren aurrean kokatuta dago.

ZIMURRAREN TONTORREAN (2014-2015)



Urtea: 2014-2015

Izenburua: *Zimurraren tontorrean/En la Cresta de la Arruga*

Zuzendaritza: Eva Mena eta Nahikari Mora

Azalera: 120 m²

Kokapena: Mendoza 59 kalea

Ikuspegi hoberena: Llodio plazaren mendebaldea

Adinekoei dedikatutako murala da. Zaramaga langile auzoa izan da betidanik, beste probintzietako etorkinez jendeztatua eta berriki beste herrialdeetako ere. Populazio gero eta zaharragoa da eta gazteek aukerak beste tokietan bilatzen dituzte.

ZARAMAGAKO KATAMOTZA (2015)



Urtea: 2015

Izenburua: *Zaramagako Katamotza/El Lince de Zaramaga*

Zuzendaria: Karen Warner

Azalera: 89 m².

Kokapena: Reyes de Navarra kalea, 27

Ikuspegi hoberena: Telefonica zaharraren ondoan

Mural honetan animalia munduan ematen den sinbiosia eta espezien arteko ametsetako erlazioa irudikatzen da. Galduta dagoen eta berreskuratu behar den biodibertsitateari egiten zaio erreferentzia.

ZU HEMEN ZAUDE (2016)



Urtea: 2016

Izenburua: *Zu hemen zaude/Usted Está Aquí*

Izenburua: Itzal García, David Tavares

Laguntzailea Carolina Fernández

Azalera: 120 m²

Kokapena: Mendoza kalea 1

Ikuspegi hoberena: *In situ*

Mural hau haien jatorrizko lekua utzi eta Gasteiz hiria eraiki zuten pertsona guztiei omenaldia da. Immigrazioerik gabe ezin baita ulertu hiriaren identitatea, eta are gutxiago Zaramagakoa.

Jarraian hiru proiektu muralistikoen azalpen sakonagoa planteatuko da. Mural zehatz hauek arrazoi ezberdinengatik aukeratuak izan dira. Alde batetik, gai aniztasuna erakusten dutelako; *IMVG*-ak lantzen dituen gai orokor guztiak hiru mural hauetan biltzen direla esan daiteke: genero berdintasuna, memoria historikoa, ingurumena eta iraunkortasuna, immigrazioa eta Gasteiz hiriarekin erlazionatutako elementuen auziak. Beste aldetik, horma-irudi hauetako batzuk ezaugarri bereziak erakusten dituzte, eta hauetan proiektuan erabiltzen diren teknika, baliabidea edo hizkuntza artistiko ezberdin ikus daitezke.

Hurrengoak dira bere osotasunean eta sakonki aztertuko diren muralak: *Zer egingo dugu jakindakoarekin?* (2011), *Itxaropenaren argia* (2011), eta *Zu hemen zaude* (2016).

2.4.1. ZER EGINGO DUGU JAKINDAKOAREKIN? (2011)

2011. urtean *IMVG*-ak proiektu muralistiko anitz eraman zituen aurrera, eta horien artean *Zer egingo dugu jakindakoarekin?* izeneko mural berezia aurkitzen dugu; bi mural fatxada bakar batean sortu baitziren. Verónica Werckmeister izan zen proiektu honen zuzendaria, eta Nadia Beltran de Lubiano, Aleksei Lacalle eta Irantzu Lekue laguntzaile gisa aritu ziren; Joan Ander Corres, Tania Barrera eta Eder García, berriz, praktiketako laguntzaileak izan ziren. Murala Alde Zaharrean dago kokatuta, zehazki San Prudentzio Ikastetxea kalean, Artium Museoaren aurrean.

IMVG-ko web orrialde ofizialean aski ondo azaltzen den moduan, ingurumenaren eta “berde” izatearen inguruko eztabaida batetik sortu zen mural hau. Oso gai aproposa dugu Gasteiz hiriko kaleetan ikusteko, izan ere, murala egin eta urte bat geroago, 2012. urtean, Gasteiz “*Green Capital*” izendatua izan zen. Horma-irudiak harridura sentzazioa sorrarazi nahi du ikuslearengan, naturari buruz galdera hau planteatzearekin batera: Zer egingo dugu jakindakoarekin? Mendeetan zehar metatzen ari garen ezaguera guztia erabiltzen ari gara? Ez soilik natura mantentzeko, baizik eta gure ingurumena eta gure bizi modua hobetzeko. Gasteiz bere ingurumena zaintzen eta babesten duen hiri baten eredu dugu, bere espazio natural periferikoetan biodibertsitatearen hobetze eta babestearen alde egiten duena.


Muralaren konposizioak kokatuta dagoen eraikinaren arkitektura, funtzioa eta kokapena kontuan hartzen du. Paulo Freire Helduen Irakaskuntzarako Ikastetxea eskola publiko eta doakoan dago kokatua, bere garaian liburutegi bat izan zena. Artium Museoaren parean eta Alde Zaharraren kale bateko sarreran, hiritarren ohiko pasealekua. Murala lau zatitan banatuta dago bertikalki, eta behetik gorako perspektiba planteatzen da, behean hurbilen dagoena eta goian hurrenena. Beheko esparruan liburu eta lamina ugarien pilaketa ikusten da, eta irekiak dauden liburu batzuetan gizakiak duen jakintza horren adibide



Zer egingo dugu jakindakoarekin? (2011), San Prudentzio ikastetxea kalea / Argazkia: Karla Francisco.

ugari daude: fisikako formulak, ekosistemaren inguruko informazioa edo *Linguae vasconum primitiae* euskal liburuaren irudikapena, besteak beste. Hurrengo esparruan, landare autoktonoak ageri dira eskala monumentalean: haritza, pagoa eta gaztainondo hostoak. Hirugarren zatian, berriz, Salburuako hezegunea da ikusgai, hiriak espazio berde babestu bezala berreskuratu izan zuena. Eta azkenik, eraikinaren zonalde garaienean lur planeta ikusten da espaziotik.

Koloreei erreparatuz bi zonalde ezberdindu daitezke, lehengo bi esparruetan zuria, berdea eta laranja nagusitzen diren bitartean, goialdean urdina da azpimarratu beharreko kolorea. Nahiz eta guztiz nabaria ez izan, koloreen iluntze progresibo bat ematen dela esan daiteke, behean zuritik hasten gara eta azkenik goialdean urdin ilunarekin bukatu. Erabilitako koloreak beti ere azpimarratu nahi duten ingurumen eta natura horrekin bat joango dira, hau da, naturako kolore ohikoak. Kasu honetan, mural figuratibo baten aurrean gaude, hiritarrek modu errazean errekonozitu ahal dituzten elementuak agertuz: liburuak, landareak, Salburuako espazioa, zerua...



'Detalea'. Zer egingo dugu jakindakoarekin? (2011), San Prudentzio ikastetxea kalea / Argazkia: Karla Francisco.

Paraleloki, *bideo mapping*¹⁸-eko lantegi parte-hartzaile batek 3Dko proiektzio ikusgarria sortu zuen, hau izanik lehenengo *moving mural*¹⁹-a (mugimenduan dagoen murala). 2011ko abenduaren 23an egin zen deskribatutako fatxada berean. Fernando Pérez izan zen zuzendaria eta Aleksei Lacalle audio zuzendaria. Christina eta Verónica Werckmeister izan ziren produktore exekutiboak. Esperientzia berritzaile honen bitartez muralismoren teknika tradizionalak (piktorikoa) eta berriagoak direnak (*bideo mapping* eta 3D animazioa) konbinatu ziren. Ingurumenaren iraunkortasuna eta naturaren inguruko kontakizun moduko bat sortu zuten teknika berritzaile horien bidez, superproduktzioa edo zoramenezko kontsumoa bezalako kontzeptuak ukituz. Baita energia kontsumoaren inguruko kontzientzia falta eta haren ondorioak islatzen dira. Ingurumena zaintzeko erronka planteatzen da bertan. Bideoaren formatua tailer parte-hartzaile baten ondorio moduan jaitzen, gero bi gazte artistek garatu zutena, beraz, pertsona ezberdinen arteko kolaborazioaren emaitza da *moving mural* hau. Mural honetan, eta proiektuaren gainontzekoetan ere, hori ondo islatuta geratzen da, artelanean kolaboratu duten entitate eta pertsona guztien izenak agertzen baitira.

2.4.2. ITXAROPENAREN ARGIA (2011)

Itxaropenaren argia 2011. urtean egindako beste mural bat da, Michelle Angela Ortiz-ek eta Iban García Bartolomé-k zuzendutakoa. Julen Morillas eta Mikel Baraibar laguntzaile moduan aritu ziren, eta Izaro Sánchez praktiketako laguntzailea izan zen. Kasu honetan Alde Zaharraren barnean kokatzen den horma-irudia da, zehazki Zapatari kaleko 76 zenbakian.

Koloreen hizkuntzaren bidez, tonu hotzek arazoa adierazten dute eta beroek berriz, konponbidea; ezberdintasunetik eta estereotipoetatik hezkuntzara, justiziara eta itxaropenara abiatzeko nahia adierazten da. Horma-irudi hau Unescoetxea²⁰ eta Garapen Bidean elkarrean babespean dago, Emakumearen eta Bakearen Gaineko Nazio Batuen 1325 Erabakiaren²¹ hamargarren urteurrenaren ospakizunean lanean ari zirenak urte horretan.

¹⁸*Bideo mapping* edo *Projection mapping* irudien edo animazioen proiektzioan datza, eraikinen eta beste tankerako hiru dimentsiotako azaleratan egiten dena. Teknika honen erabilpena batez ere monumentu izaera duten eraikinetan egiten da, maiz, musikaz lagundurik, ikuskizunaren lagungarri gisa.

¹⁹*Moving mural*-a ikusteko baliabidea:

https://www.youtube.com/watch?reload=9&time_continue=106&v=5RSGZoQ9OFQ.

²⁰Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jardueraildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du: http://www.unescoetxea.org/base/ques-unesco.php?id_atala=2&id_azpiatala=13054&hizk=eu.

²¹Resolución 1325 (2000): <http://www.un.org/womenwatch/ods/S-RES-1325%282000%29-S.pdf>.

Gainera, Gloria Guzmán-ek eta Irantzu Mendía-k, *1325 Emakume Bakea Ehunduz* liburuaren idazleak, parte hartu zuten modu aktiboan proiektu honetan, liburuaren helburua bakearen eraikuntzan emakumearen paperaren garrantzia azpimarratzea izanik.

Horma-irudia egiteaz gain, *Ez daude soilik bi kolore* dokumentala sortu zen proiektu beraren ondorioz. *Ez daude soilik bi kolore* edo *No solo hay dos colores*²² EITB-ek saritutako dokumentala da, Sandra Santos-ek zuzendua, Tamara Moreno García-ren laguntzarekin batera.

Horma-irudi hau adin, lanbide eta jatorri ezberdinetako hiritarren parte hartzearekin aurrera eraman zen, gehienak esperientzia artistiko handirik gabekoak. Kasu honetan, artea genero berdintasunaren inguruko hausnarketa egiteko erreminta moduan erabiltzen da. Mural honen helburu nagusia eta hiritarrei helarazi nahi zaien mezua genero berdintasunaren aldeko errebindikazioa da. Baita kultur aniztasuna aldarrikatzea ere, beti kontuan izanik genero ezberdintasuna dela beste guztiak zeharkatzen dituen. Koloreek ere asko laguntzen dute muralaren irakurketan eta haien sinbologia propioa daukate.

Murala azterketa estilistiko formalari dakionez, aurrekoan ematen den moduan, behetik gora irakurtzen da, eta kasu honetan zehazki eskuinetik ezkerreara. Honetaz gain, koloreei eta irudiei erreparatuz, konposizio diagonaletan antolatzen den irudi bat da.

Narrazio sinboliko honen lehengo irudia azpialdeko eskuinaldean kokatuta dagoen manifestazioa da. Bertako manifestariak berdintasunaren alde borrokatzen ari dira, eta aldarrikapen mezua ezberdinak daramatzate pankartetan (horietako batean hizkuntza ezberdinez Berdintasuna hitza agertzen da). Esparru honetan, muralaren kolore ilunenak agertzen dira, morea eta urdin ilunak. Eszena hori ezkerreantz garatzen da, eta hiru pertsona ezberdin ikusten dira zirkuluen barnealdean. Kolore leunagoak erakusten dituzte irudi hauek; itxaropen horretara hurbiltzen goaz koloreen argitze progresiboaren bidez. Estereotipoen apurketa baten aldeko irudiak dira. Erdikoan Gasteizen lanean ari den etorkin bat irudikatua dago, eta “gizon baten lana” kontsideratua dagoena egiten ari da (zurgintza lana edo antzekoa). Kultur dibertsitate hori azpimarratzeko lauburu bat darama lepokoan. Beste bi zirkuluetan, mutil eta neska bat jolasean ari dira. Behealdean neska jostailuzko kotxe batekin dago, imajinaziozko errepide batetik garraiatzen duelarik; goialdean, mutila panpinekin jolasean, eta inguruan imajinatzen duen fantasiako mundu hori errepresentatzen da. Borobiletan agertzen diren hiru puntu hauek konponbidearen parte dira, gizartearen estereotipoei aurre egiten hasi behar garela adieraziz.

²²Bideoa ikusteko baliabidea: https://www.youtube.com/watch?time_continue=84&v=JABFXaVW_-E (azken kontsulta 2018.03.08).

Murala ezkererago dagoen diagonal baten bidez garatuz doa, koloreak gero eta argiagoak eta beroagoak izanik. Bertan, kontrako aldeetan kokatzen diren ama eta aita bat ikusten ditugu, biak umeekin. Irudi hauen bidez guraso biek umeen hezkuntzan izan behar duten garrantzi bera adierazi nahi da. Ondoren, eta aipatzen den konposizio diagonal horrekin apurtuz, landarezko forma kiribilduez egindako balantza bat dago. Balantza horren alde batean ilargia dago eta bestean eguzkia, bi generoen sinboloak irudikatuz. Balantza gutiz orekatu dago kasu honetan, eta aldarrikatzen den justizia horren irudia da. Amaitzeko, muralean protagonismo gehien hartzen duen amama kokatzen da ezkerrean; euskaldun itxura duen adineko emakumea da (euskaldun kulturari eta Gasteizeko Alde Zaharrari erreferentzia egiten dio). Bere begietan ilusio eta itxaropen bat nabari daiteke, eta kolore argienak hemen kokatzen dira, horia eta laranja nagusituz. Hau da eguzkiak gehien argitzen duen pinturaren aldea, horregatik “itxaropenaren argia” izenburua.



Itxaropenaren argia (2011), Zapateri, 76 / Argazkia: Karla Francisco.



'Detailea'. Itxaropenaren argia (2011), Zapateri, 76 / Argazkia: Karla Francisco.

2.4.3. ZU HEMEN ZAUDE (2016)

Zu hemen zaude izeneko horma-irudia *IMVG*-ak aurrera eramandako azken proiektu muralistikoa da, Itzal García eskultura irakaslearen eta David Tavares diseinatzaile grafikoaren zuzendaritzapean, Carolina Fernández-en laguntzarekin. Zaramagako auzoan sortutako laugarren murala da, *Martxoak 3*, *Zaharrak* eta *Katamotxa* izeneko horma-irudiak egin ondoren.

Horma irudi honen gaia erabat erlazionatuta dago auzoaren historia eta errealitate sozialarekin; immigrazioa hain zuzen. Izan ere, immigraziorik gabe ezin da ulertu Gasteiz hiriaren eta are gutxiago Zaramaga auzoaren identitatea. Mural honek bere jatorrizko lekua utzi eta Gasteiz eraikitzen lagundu zuten pertsonen omenaldi bat da. Lan tailerlean zeudenean, kontzeptu anitz eta kontraesankorrekin ibili ziren lanean: trantsitua eta etxea, sustraiak eta bidea, nostalgia atzean uzten denagatik baina ilusioa etorriko den berri horrengatik... Halako ideiak dira horma-irudi honetan agerrarazi nahi izan zirenak. Alde batetik, etxea



**Zu hemen zaude (2016), Mendoza
Kalea 1 / Argazkia: Karla Francisco.**

edo familiari erreferentzia egiten dioten elementuak, eta beste aldetik, bidaia edo ibilbideari erreferentzia egiten diotenak. Etxearen kontzeptu hori islatzeko garai bateko etxeetako lore estanpatua erabili zuten, eta bidearen ideia sinbolizatzeko prozesu industrialetik berreskuratutako pneumatiko birziklatuez baliatu ziren.

Etxeko elementu pribatu bat (loredun estanpatua) kalera eramatean ikuslearengan harridura sortarazi nahi du mural honek. Gainera, inklinatuta egonik, mugimenduan dagoen irudia dela ematen du, leku berri batera zoazenean sentitzen den ezegonkortasuna adierazi nahian. Baina muralera hurbiltzerakoan ñabardura berriak nabaritzen dira, baita kolore aldaketa batzuk ematen direla ere; mugimenduan ikusteko mural bat da, dar-dar egiten duena. Guztiz hurbiltzean ikus daiteke estanpatua izenburu anitzez osatuta dagoela. Bertan, kaligrafia ezberdinak agertzen dira, eta izenburu horiek handik etorri eta hemengoak diren familia ezberdinei egiten diete erreferentzia.

Mural hau beste guztien artean ezaugarri nabari batengatik ezberdintzen da: *IMVG*-ak sortutako lehenengo erliebedun murala da. Honek aurrerapauso bat suposatu zuen, baina baita zenbait arazo ekarri zituen. Alde batetik, udalaren araudiak ez zuen baimentzen erliebea bolumen handia izatea, segurtasuna zela eta. Bestalde, ekonomikoki mugatuak zeuden; orain ez zuten bakarrik pinturarekin lan egingo eta horrengatik aipatutako pneumatiko birziklatuak erabili zituzten. Gainera, denboraren aldetik ere ez zituzten erraztasunik izan²³.

²³ORDUNA ALEX, L.: "Zaramaga ya espera su nuevo mural", *Noticias de Álava*. 2016ko ustailaren 5a, <http://www.noticiasdealava.com/2016/07/05/araba/zaramaga-ya-espera-a-su-nuevo-mural> (2018.04.09an kontsultatua).

“Paretik kanpo” kontzeptuarekin lan egin zuten, eta hori izan zen horma-irudi honetan irudikatu nahi zutena. “Paretik kanpo” edo “Fuera de la pared” metafora moduan erabili zen, auzoa nortzuk eraiki duten eta nondik datozen aldarrikatzeke. Erronka bat planteatzen zitzaien proiektu honetan, immigrazioaren gaia bolumetrikoa zen elementu batekin adieraztea, eta azkenean, plastikoki berritzailea zen baliabide bat gai horretara egokitzen jakin izan zuten modu eraginkor batean. Immigrazioak urte horretan, eta oraindik, Gasteiz hiriko politika marraztu du, eta ez zuten ahaztu nahi Gasteizekoak diren hiritar askok immigrazioaren semeak direla.

Tamaina erraldoiko diseinu geometriko eta errepikakorra ikusten da horma-irudian. Loreen hostoak egiteko kartoizko txantiloak erabili zituzten, eta zirkuluak egiteko korda eta arkatx batekin konpas erraldoi moduko bat asmatu zuten. Kolore biziak eta alaiak erakusten ditu, 60. hamarkadarekin identifikatu daitezkeenak eta aurrerabidearekin erlaziona genitzakeenak, immigrazioaren alde positibo hori islatu nahi baitzuten.

Lan tailerrean ideia nahiko abstraktuak, eta kontrajarriak atera ziren immigrazioa bezalako gai zabala jorratzean. Hortaz, ideia horiek guztiak irudikatzen zuen artelan bat sortzea zaila izango zitekeenez, irudi abstraktuago bat egitea hautatu zuten. *Zu hemen zaude* horma-irudia guztien artean abstrakzio gehien hurbiltzen den lana da, eta hori da mural hau ezberdina egiten duena. Muralismoaren helburu nagusietako bat artearen bidez ahalik eta hiritar gehienengana iristea da; hori zailagoa izan daiteke irudi abstraktu batekin eta horregatik horrelako proiektu muralistikoak egiteko figurazioa hautatzen da gehienetan. Kasu honetan figurazioa hein batean alde batera utzi arren, immigrazioaren kontzeptzio hori aski ondo adierazten da aipatutako bi elementuen bidez: pneumatikoak eta loredun estanpak²⁴.



‘Detailea’. *Zu hemen zaude* (2016), Mendoza Kalea 1 / Argazkia: Karla Francisco.

²⁴“Visitamos el nuevo mural de Zaramaga”, *CadenaSer*: http://cadenaser.com/emisora/2016/07/20/ser_vitoria/1469015365_783779.html (2018.05.07an kontsultatua).

3. GASTEIZEKO TRADIZIO MURALISTIKOA

IMVG proiektu muralistikoak lan handia egin du Gasteizeko auzo ezberdinetan. Hiria edertzen eta auzo horien identitate propioa, eta baita hiriarena ere, indartzen lagundu dute sortu dituzten horma-irudiek. Gainera, lan komunitario garrantzitsua egin dute auzo horien hiritarrekin, parte-hartze eta inplikazio nabarmena izan dutenek. Indarrean jarraitzen duen eta horma-irudi berriak burutzear dagoen izaera lokaleko proiektu honek, bere oihartzuna ere lortu du nazioarteko esparruan, arte zerrenda garrantzitsuetan aipatua izanik. 2015. urtean, adibidez, International Award for Excellent in Public Art finalerdira iritsi zen, eta 2017. urtean Copa España Creativa²⁵-ra aurkeztu zen. Bestalde, aurten jakin da Gasteizeko muralismo proiektua 20minutos.es-eko Arte urbanoaren hamar ibilbideen barnean sartu dela²⁶.

Hala ere, *IMVG*-a ez da Gasteizen dagoen izaera horretako proiektu bakarra. Izan ere, Gasteiz grafiti zein muralismo tradizio garrantzitsua duen hiria da. Hiri honetako kaleetatik ibiltzen joatean konturatzen zara muralak protagonismo handia dutela. Gainera, oraindik jarraitzen dira egiten horma irudiak modu nabarmenean erakunde eta inizatiba ezberdinetatik. Baina nire helburua ez denez Gasteiz hiriko horma-irudi guztiak bere osotasunean aztertzea, puntu honetan tradizio muralistiko hori ulertzeko esanguratsuenak diren adibideak aipatuko ditut.

Orain dela bi urte Gasteizeko El Pilar auzoan *Pompa 945*²⁷ izeneko proiektua sortu zen. Proposamen komunitarioa da, eta hiri-artearen bitartez, auzoaren birgaitze artistikoa egitea du helburu. *IMVG*-arekin antzekotasunak ditu, baina Gasteizeko beste auzo batean garatzen da. Proiektu hau abiapuntu izanik 2017ko azaroan, Montehermoso jauregian erakusketa esparru bat antolatu zen *Pompa 945* proiektua dokumentatuz, muralen zein auzokideen argazkiak eta bideoak erakutsiz²⁸.

Hiriaren identitatea markatzen duen beste auzo batean aurkitzen ditugu, beste batzuen artean, jatorri italiarra eta izaera internazionala duen Blu izeneko artistaren muralak; Errekaleor auzo okupatuan hain zuzen ere. Bertan Blu artista independenteak egindako bi horma-irudi politiko aurkitzen dira, auzoaren egoera partikularrekin eta aldarrikatzen duen filosofiarekin bat eginez. Muraletako batean inbasio zombien atzeko

²⁵“Vitoria-Gasteiz compite por la Copa España Creativa con su itinerario muralístico como motor de turismo sostenible”, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 2017 urriaren 27a, <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/2017/10/27/vitoria-gasteiz-compite-por-la-copa-espana-creativa-con-su-itinerario-muralistico-como-motor-de-turismo-sostenible/> (2018.05.07an kontsultatua).

²⁶10 rutas de Arte urbano por España: <https://listas.20minutos.es/lista/10-rutas-de-arte-urbano-por-espana-422987/> (2018.05.07an kontsultatua).

²⁷Pompa 945: <http://pompa945.kalezkalevg.org/> (2018.05.07an kontsultatua).

²⁸Pompa 945 Exposición: http://www.montehermoso.net/pagina.php?id_p=612 (2018.05.07an kontsultatua).

eszena bat agertzen da, politikaren munduko pertsonaiak, polizia eta enpresa energetikoek protagonizatzen dutena, baina hauek barrkada baten oztopoa aurkitzen dute. Beste muraletan giza silueta bat dago, buruan bala batek eragindako zuloa izan litekeenarekin, bere barnean eszena gainjarriak biltzen dituena²⁹.

Gasteizen orain dela urte batzuk grafiti zein muralismo joera artistiko hauen tradizio esanguratsua dago. Santa Lucia, Arana, Aranbizkarra, Adurtza edo Zaramagako auzoetan grafitiaren eta “*street art*” bezala ezagututakoaren inguruko mugimendu artistikoa existitu izan da, pixkanaka hiriburu arabarraren beste puntuetara mugitzen joan dena. Hasiera batean polemikaz beteriko praktika artistikoa izan zen, baina pixkana komunitateak onartu eta berea egiten hasi da. Horretan zenbait ekimenek lagundu izan zuten, adibidez 2009. urtean, udalaren babespean jaiotako *Muralia* izeneko proiektu kulturala. 2013. urtera arte urtero ospatutako ekimen kulturala izan zen, bere helburua aktibitatearik gabeko lokal komertzialen eta haien inguruan kokatutako kaleen estetika hobetzea izanik. Gainera, diziplina piktoriko ezberdinen erakusleho gisa funtzionatu dute komertzio hauek, grafiti eta komiki muralistikoa bezalako tendentziak azaleratuz. Atzerago abiatzean ikusten da mota horretako ekimenak 2006. urtean jada bazeudela. Urte horretan *Festiart* izeneko ekintza kulturala sortu zen Santa Luciako auzoan, lokal huts askoko zonaldea³⁰.

Oro har, Gasteiz hiriko auzo guztietan ikusten dira grafitiak edo horma-irudiak, sinpleenetatik konplexuenera, letrak bakarrik dituztenak edo figurazioaren alde egiten dutenak. Gai anitzeko muralak izaten dira, gehienek hiriaren edo auzoaren historiarekin eta identitatearekin identifikatzen direnak. Gainera, leku anitzetako fatxadetan daude: ikastoletan, komertzioetan, edukiontzietan, etxeetan...³¹ Gasteizko artistek badaramate zenbait urtez hiriko kaleak edertzen, komunitateak inplikazio nabaria duela hautematen da, eta muralak egiteko inizatibak gero eta indar gehiago dute hiri honetako kaleetan. Azken hilabeteetan proiektu berriak sortu izan dira, adibidez, Afrika oinarri duen horma-irudi berria Alde Zaharreko San Frantzisko Javier Kantoian, Fill-in-Culture taldearen ekimenez³²

²⁹ JORGE MUÑOZ, C.G.: “El conocido artista Blu crea dos murales en Errekaleor”, *Noticias de Álava*, 2017ko uztailaren 17a, <http://www.noticiasdealava.eus/2017/07/12/ocio-y-cultura/cultura/el-conocido-artista-italiano-blu-crea-dos-murales-en-errekaleor> (2018.04.19an kontsultatua).

³⁰ BIAIN, A.: “DESDE VITORIA-GASTEIZ / Homenaje al arte urbano”, *Diariovasco.com*, 2006ko ekainaren 29a, <http://www.diariovasco.com/pg060629/prensa/noticias/AltoDeba/200606/29/DVA-ALD-010.html> (2018.05.07an kontsultatua).

³¹ NUÑO, N.: “Vitoria, capital del grafiti urbano”, *El Correo*, 2014ko maiatzaren 8a, <http://www.elcorreo.com/alava/araba/201405/08/vitoria-ciudad-grafitis-20140506075356.html> (2018.05.07an kontsultatua).

³² “Afrikan oinarri duen horma-irudi berria egin dute”, *Alea*, 2017ko abenduaren 20a, <https://alea.eus/gasteiz/1513780308067-afrika-horma-irudi-alde-zaharra-gasteiz> (2018.05.07an kontsultatua).

edo Ariznabarra eta San Martin auzoak lotzen dituen pasabideko eskaileretako mural partehartzailea³³.

³³“Un nuevo mural colaborativo luce en las escaleras del pasaje de Ariznabarra”, *GasteizHoy*, 2018ko martxoaren 31a, <https://www.gasteizhoy.com/mural-escaleras-pasadizo-ariznabarra/> (2018.05.07an kontsultatua).

4. ONDORIOAK

Vitoria-Gasteizeko *IMVG La ciudad pintada/Hiri margotua (Itinerario muralístico de Vitoria Gasteiz)* proiektuaren inguruko parametro anitz eta pintura muralaren gaineko elementu orokor batzuk aztertu ondoren, arteak gizartearen eraldaketan eta hobekuntzan duen eraginkortasuna azpimarratzekoa da. Era berean, izaera horretako ekimenekin gaur egun artea -eta bereziki arte urbanoa- erreminta kultural gisa kohesio sozialaren mesedetan erabili daitekeela frogatzen da.

2007. urtean eta egun martxan jarraitzen duen proiektu komunitarioa dugu *IMVG*-a, eta bertan artean adituak eta ez hain adituak diren pertsonak parte hartu dute. Gasteiz hiriko kaleak kolorez betetzen duen proiektu artistiko eta sozial hori aztergai izanik, garrantzitsua izan da pintura mural urbanoaren inguruko testuinguru bat planteatzea eta bere jatorria ezagutzeko. Gainera, baieztatu ahal izan da *IMVG*-a ez dela muralismo publikoaren proiektu isolatu bat Gasteiz hirian, baizik eta hiriak tradizio muralistiko garrantzitsua eta esanguratsua duela, eta tankera horretako proiektuak auzo ezberdinetan planteatzen eta burutzen jarraitzen direla. Horrekin batera, nahitaezkoa da errepikatzea arteak, eta zehazki horma-irudiek, hiriaren balioa handitzean eta gizartearen kohesio sozialean duten garrantzia.

IMVG proiektuaren balioa beste zenbait alderdietan ere ikus daiteke. Gasteiz hiriko proiektu komunitario bat dugu, zeinetan arteak erreminta sozial gisa funtzionatzen duen, auzokideen arteko elkarlana bultzatuz. Tailerrek eta aurre lanek berebiziko garrantzia daukate proiektu honetan, artista, boluntario eta laguntzaileen arteko elkar harreman horren bidez sortzen direlako auzoetako kaleak apaintzen dituzten horma-irudi erraldoien inguruko ideiak. Bakoitzak bere bizipenak edota hiriarekin edo momentuan lantzen ari den gaiarekin duten erlazioa azalarazten dute. Izan ere, proiektu honetan nabarmentzekoa da artistek Gasteizeko hiritarrek lan egiten dutela, eta auzokideek haien auzoak dekoratzen dituztela, haien hiriko kaleetan ahotza izanik. Horrela horma-irudiak balore gehiago hartzen du, hiritarrek beraiek egindako artelanak direlako. Alaber, gai gehienak, modu zuzen edo zeharkakoago batean hiriarekin erlazionatuta daude, lan kolaboratzaile eta parte hartzailea izanik.

IMVG-aren beste helburuetako bat kalean museo bat sortzea da, artea gizarte osora zabaltzea. Arte urbanoa izanik, kaleak edertzeaz gain, klase sozial guztientzako hiritarrei mezuak helaraztea ahalbidetzen du. *IMVG*-ko horma-irudietan, eta arte mural urbanoan oro har, hiritar guztiak irakurtzen eta ulertzen dituzten artelanak sortzen dira, helburua ahalik eta jende gehienarengan iristea baita. Hori dela eta, lantzen diren gaiak unibertsalak dira

gehienetan (immigrazioa, genero berdintasuna, natura eta ingurumena...), eta kasu honetan, artea eta hiritarren arteko erlazioa ahalik eta zuzenenena izateko Gasteiz hiriren izaerarekin eta elementu propioekin erlazionatutako gaiak eta ezaugarriak agertzen dira.

Egindako muralismo publikoaren inguruko ikerketa honekin amaitzeko, aipatzekoa da, arte historialari gisa, oso aberasgarria izan dela lan propio eta pertsonal bat garatzea, oraindik oso ikertuta ez dagoen gai baten inguruan. Hala ere, hau oraindik prozesu batean dagoen eta bizirik dirauten proiektuenganako lehen hurbilketa izan da besterik ez, eta horregatik, errealitate konplexu baterako ikerketak jarraitu egin beharko dutela proposatzen dut.

5. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA:

BIBLIOGRAFIA:

BERTI, G. I.: *Pioneros del graffiti en España*. Valencia, Universidad Politécnica de Valencia, 2009.

CAMPOS, C.: *Graffiti y arte urbano: atlas ilustrado*. Madrid, Susaeta, 2011.

GANZ, N.: *Graffiti. Arte urbano en los cinco continentes*. Barcelona, Gustavo Gili, 2004.

MUÑOZ ASENSIO, T.: *Arte mural urbano. Madrid 1961-1991*. Madrid, Universidad Complutense, 1993.

WEBGRAFIA:

BIAIN, A., : “DESDE VITORIA-GASTEIZ / Homenaje al arte urbano”, *Diariovasco.com*, 2006ko ekainaren 29a, <http://www.diariovasco.com/pg060629/prensa/noticias/AltoDeba/200606/29/DVA-ALD-010.html> (2018.05.07an kontsultatua).

CAPASSO, V.C.: “Apropiaciones y reapropiaciones del espacio de la ciudad. Un análisis de intervenciones artístico-políticas contemporáneas en la transformación del imaginario sobre lo público”, *Questión. Revista Especializada en Periodismo y Comunicación*, 32 zbk., 2011, 1-2 orr. <http://perio.unlp.edu.ar/ojs/index.php/question/article/view/1284> (2018.04.16an kontsultatua).

GRAU TELLO, M.L.: “Cuando los muros hablan. Una aproximación a la pintura mural en el espacio urbano durante la Transición”, *Arte y Ciudad- Revista de Investigación*, 3 zbk., 2013, 71-89. orr. <http://www.arteyciudad.com/revista/index.php/num1/article/view/88> (2018.02.28an kontsultatua).

GRAU TELLO, M. L.: “La pintura mural en el espacio urbano”, *Revista de Andorra*, 8 zbk., 2009, 258-272 orr. <http://www.celandigital.com/25/index.php/publicaciones/pub-periodicas/revdeand/revista-de-andorra-14> (2018.02.28an kontsultatua).

JORGE MUÑOZ, C.G.: “El conocido artista Blu crea dos murales en Errekaleor”, *Noticias de Álava*, 2017ko uztailaren 17a, <http://www.noticiasdealava.eus/2017/07/12/ocio-y-cultura/cultura/el-conocido-artista-italiano-blu-crea-dos-murales-en-errekaleor> (2018.04.19an kontsultatua).

NUÑO, N.: “Vitoria, capital del graffiti urbano”, *El Correo*, 2014ko maiatzaren 8a, <http://www.elcorreo.com/alava/araba/201405/08/vitoria-ciudad-grafitis-20140506075356.html> (2018.05.07an kontsultatua).

ORDUNA ALEX, L.: “Zaramaga ya espera su nuevo mural”, *Noticias de Álava*, 2016ko uztailaren 5a, <http://www.noticiasdealava.eus/2016/07/05/araba/zaramaga-ya-espera-a-su-nuevo-mural> (2018.04.09an kontsultatua).

“Vitoria-Gasteiz compite por la Copa España Creativa con su itinerario muralístico como motor de turismo sostenible”, *Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz*, 2017ko urriaren 27a, <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/2017/10/27/vitoria-gasteiz-compite-por-la-copa-espana-creativa-con-su-itinerario-muralistico-como-motor-de-turismo-sostenible/> (2018.05.07an kontsultatua).

“Afrika oinarri duen horma-irudi berria egin dute”, *Alea*, 2017ko abenduaren 20a, <https://alea.eus/gasteiz/1513780308067-afrika-horma-irudi-alde-zaharra-gasteiz> (2018.05.07an kontsultatua).

“Un nuevo mural colaborativo luce en las escaleras del pasaje de Ariznabarra”, *GasteizHoy*, 2018ko martxoaren 31a, <https://www.gasteizhoy.com/mural-escaleras-pasadizo-ariznabarra/> (2018.05.07an kontsultatua).

IMVG-aren web orrialde ofiziala: <http://www.muralismopublico.com/p/eu/hasiera.php> (2018.04.16an kontsultatua).

Ur agentziaren webgunea: http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000376/eu/contenidos/termino/_c04410/eu_n_0710/n0710.html (2018.05.03an kontsultatua).

SPARC: <http://sparcinla.org/> (2018.05.07an kontsultatua).

Unesco Etxea: http://www.unescoetxea.org/base/que-unesco.php?id_atala=2&id_azpiatala=13054&hizk=eu (2018.05.07an kontsultatua).

Resolución 1325 (2000): <http://www.un.org/womenwatch/ods/S-RES-1325%282000%29-S.pdf> (2018.05.07an kontsultatua).

Bill Roslton: <https://billrolston.weebly.com/> (2018.05.07an kontsultatua)

Bakeola: <http://www.bakeola.org/principal.asp?idioma=eu> (2018.05.07an kontsultatua)

Pompa 945: <http://pompa945.kalezkalevg.org/> (2018.05.07an kontsultatua).

Pompa 945 Exposición: http://www.montehermoso.net/pagina.php?id_p=612 (2018.05.07an kontsultatua).

BESTELAKO BALIBIDEAK:

“¿Qué Haremos con lo que sabemos? Primer Moving Mural”, *Youtube*: https://www.youtube.com/watch?time_continue=106&v=5RSGZoQ9OFQ (2018.05.16ankontsultatua)

“No solo hay dos colores”, *Youtube*: https://www.youtube.com/watch?time_continue=530&v=JABFXaVW_-E (2018.04.16an azken kontsulta).

“Visitamos el nuevo mural de Zaramaga”, *CadenaSer*:

http://cadenaser.com/emisora/2016/07/20/ser_vitoria/1469015365_783779.html

(2018.05.07an kontsultatua).

Lan hau burutzeko *IMVG La ciudad pinta/Hiri margotua* proiektuaren zuzendariekin elkarrizketak erabili izan dira.